

		ESP. KODEA.	2017IDBO0001
ESPEDIENTEA	EGITASMO OROKORRA KONTRATATZEA		
TITULARRA	BEASAINGO UDALA		
TOKIA			

BEASAINGO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAK **PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

1. BALDINTZA-AGIRI HONEN IRISMENA

Baldintza-plegu honetan BEASAINGO udalerriko hiri-antolamendurako plan orokorreko lanak idazteko prozesu osoan zehar kontuan hartzeko fase ezberdinak ezartzen dira.

Lanetako fase ezberdinen ezarpena horietako bakoitzaren berezko dokumentuetako eduki materialarekin osatzen da. Gainera, horiek egiteko eta udalerriaren hiri-antolamenduan interesa duten herritar eta erakundeentzako eztabaida publiko eta parte-hartzaileako errespetatzeko aldizkako epeak adierazten dira.

Fase ezberdinak eta horiekin lotutako dokumentuzko edukiak zehazteko hirigintza-legerian eta ingurumen-legerian ezarritako betekizunak hartzen dira kontuan. Hala, etorkizuneko plan orokorraren edukian haietan ezarritakoa bete dadin erabat.

Halaber, plegu honetan Udaletxeari aholku emateko prozesua finkatzen da. Erredakzio taldea arduratuko da horretaz aurrez adierazitako lanen eraketa-prozesu osoan zehar.

Herritarrek fase bakoitza ongi ulertze aldera, herritarren partaidetzarako saioak egingo dira. Haietan aurkeztu beharreko dokumentazio guztiaz erredakzio taldea arduratuko da.

2. BEASAINGO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN DOKUMENTUETAKO EDUKIA

Plan orokorraren eduki substantiboa Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da, baldintza teknikoaren plegu honetan garatzeko xehetasun eta zehaztapenekin, edo aurrekoa ordezkatzeko duen beste edozeinen arabera.

Berezko legeriak ezarritako hiri-antolamendurako plan orokorraren izaeragatik berezkoa duen hiri-antolamenduaren edukiaz gain, plan orokorra idazteko lanetan, era berean, ingurumen arloko legeriak plan osoaren eraketa egituratzeko ezarritako fase ezberdinetan egiteko dokumentuak barneratu beharko dira.

Horri dagokionez, kontratista harremanetan izan beharko da uneoro ingurumen arloan eskumena duten administrazioekin, Plana eratzekeo prozesu osoan zehar sor daitezkeen eskakizun guztiei erantzun egokia emate aldera.

Ingurumen arloko ebaluazio estrategikoko txostenak igortzeko ardura duen ingurumen-organismoaren arabera ezinbestekoa balitz arloko azterketa espezifikoak egitea (esate baterako, Urez

betetzeko arriskuari buruzko azterketak), ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren barnean sartuta daudela ulertuko da eta, horrenbestez, ez dira aparte kontratatzeak izango.

Plan orokorra berrikusteko ezartzen diren fase bakoitzaren deskribapenari buruzko ataletan horietako dokumentuen edukia eta irismena zehaztu beharko da, aplikagarri den araudian (estatukoa, erkidegokoa, forukoa, etab.) horri buruz ezarritakoa errespetatuz.

Alde batetik, udalerriko hirigintzan **generoaren ikuspegia sartzeari buruzko azterketa** bat barneratuko da eta **emakume eta gizonen aukera-berdintasunerako printzipioak** eta, beste alde batetik, **hizkuntza-eragina ebaluatze txostena**.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Kutsadura Akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoa barneratuko da, hala badagokio, Dekretu horretatik eratortzen diren **udalerriko zonifikazio akustikoa, eragin akustikoari buruzko azterketa eta ekintza-planak** barne, **kutsatutako zoruei** buruzko araudian ezarritakoarekin batera.

Planeko dokumentu guztiak, hartako fase ezberdinetakoak, zutabe bikoitzera idatzi beharko dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Gauza bera egin beharko da erredakzio taldeak herritarrei zuzenduta idatzitako txosten, azalpen eta hedapenerako dokumentu edota idatzizko jakinarazpen guztietan. Dokumentazio guztian hizkuntza ez sexistaren tratamendu egokia bermatuko da, indarreko xedapen eta araudiarekin bat etorritik.

Halaber, fase bakoitzaren kopia helaraziko da formatu informatikoan, plegu honetako 3.3. kapituluaren agertzen den FASE BAKOITZAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO FORMATUA izeneko atalean xedatutakoa betez.

3. PLEGU HONEN ARABERA EZARRITAKO DOKUMENTUETAKO EDUKIAREN GARAPENA.

3.1. SARRERA

Plan orokorreko lanak idazteko ezarritako fase ezberdinetako azpiataletan kontzeptuzko izaeraz ezartzen den dokumentuetako edukia adierazten da, hura osatzen duten dokumentu bakoitzean ezartzeko gutxieneko edukiarekin batera.

3.2. ESLEIPENDUNAK GARATZEKO DOKUMENTAZIOA.

3.2.1. 1. fasea: Hirigintzarekin lotutako informazioa.

Atal honetan, plan orokor bat idazteak hura dokumentu bidez zehazteko fase ezberdinei dagozkien lanak idaztearen eta herritarren partaidetzari eta Udalak hartzeko erabakiei buruzko tratamendu aldiberekoaren artean prozedura koordinatu bat abian jartzea eskatzen dutela kontuan hartuz, jarraian ezartzen diren faseetan arestian elkarrekin aipatutako alderdi guztiak deskribatzen dira, prozesu osoa modu koordinatu eta jarraituan garatu ahal izateko beharrezkoak diren denboren arabera berezko epeak zehaztuz, hastapenetik plan orokorra behin betikoz onartzen den arte.

Kontuan hartuta udalerriaren lurralde eta hirigintza mailako errealitatearen azterketaren aurretiko faseei dagozkien lan ezberdinak egin daitezkeela, jarraian ezartzen den faseen egituraketa ez dago eskusiboki sekuentziazko irizpide zehatz batekin antolatuta. Aitzitik, fase ezberdinak gainjarri egin daitezke aldi batez, batez ere, prozesuaren hasieran.

Horren ondorioz, fasearen kontzeptua denborazko sekuentzia bati dagokion edukitik haragokoa da, eta lanketa ezberdinen zehaztapenarekin konbinatzen da horien eduki materialaren arabera.

Fase horrek, gehienez, LAU HILABETEKO iraupena izango du. Hura amaituta, kontratistak aurretiko fasea azaldu eta entregatuko dio Alkateari edota gobernu-taldeari eta, ondoren, Plangintzaren Aholku Kontseiluari. Epe horretan zehar lan hauek burutuko dira: herritarren partaidetzarako programa; lurralde antolatzeko planen eta etorkizuneko plan orokorrean izango duten eraginari buruzko azterketa, eta ingurumen arloko eraginei buruzko azterketa; etxebizitzaren erabilerari eta jarduera ekonomikoaren egoerari buruzko azterketa udalerrian; hasierako dokumentuaren prestaketa ingurumen-organoari igortzeko, plana prestatzeko ingurumen arloko alderdiak txertatze aldera.

Aipatutako epearen barnean, herritarren partaidetzarako programari dagokion dokumentua aurkeztu ondoren, Plan Orokorra zer den, eta zein helburu eta ondorio dituen azalduko da, besteak beste. Erredakzio taldeak azalpenen ondoren publikora irekitako saioetan jasotako iritziei buruzko laburpen-txosten bat igorriko du, Udalak ezagutu eta aintzatetsi ditzan.

3.2.1.1. Herritarren partaidetzarako programa

Fase bakoitzean dokumentua hedatu eta lan-saioak edo foroak antolatzeko esku-hartze zehatzak ezartzea.

Proposatutako esku-hartze bakoitzaren gaineko plangintza eta deskribapen-memoria bat taxutuko dira. Horietan jarraian faseetako deskribapenean adierazten diren partaidetzako puntu guztiak jasoko dira.

3.2.1.1.1. Epea

Dokumentu hori, beranduenera, HILABETE BATEKO epean aurkeztuko da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta Udalbatzak onartu beharko du berariaz.

3.2.1.2. Lurraldea antolatzeko planen eta etorkizuneko plan orokorrean izango duten eraginari buruzko azterketa, eta ingurumen arloko eraginei buruzko azterketa

3.2.1.2.1. Lurralde eta arloko plangintzaren azterketa.

Fase honetan BEASAIN- ORDIZIA- LAZKAO Eremu funtzionalaren Lurraldeko Plan Partzialaren xehetasunezko azterketa bat egingo da, eta baita behin betiko onartuta dauden eta idazteko eta izapidetzeko prozesuan diren Lurraldearen Arloko Plan ezberdinen gaineko azterketa ere, betiere, udalerriaren lurraldean zuzenean edo, hala badagokio, zeharka eragina badute, udalaz gaindiko irismena duten behartutako lurralde-eraginak izatearen ondorioz.

Aurrez adierazitako Lurraldeko Planen azterketa egiteaz gain, BEASAIN- ORDIZIA- LAZKAO Eremu funtzionalaren Lurraldeko Plan Partzialaren gainean Lurraldearen Arloko Planak duen eragina azpimarratuko da, gehiago zehazte aldera.

Lurraldeko Planak eta horiek hiri-antolamendurako plan orokorrarekiko duten lotura aztertze lanen laburpen modura, BEASAIN- ORDIZIA- LAZKAO Eremu funtzionalaren Lurraldeko Plan Partzialari buruzko txosten bat eratuko da, eta udalerrian eragina duten indarreko eta prozesuan diren Lurraldearen Arloko Plan bakoitzari buruzko txosten bat ere bai.

Lurraldeko Plan Partzialari buruzko txostenean lurralde mailan dituen loturen eta hiri-garapenaren kuantifikazioaren gaineko azterketa barneratu beharko da,

hala bizitegi erakoa nola jarduera ekonomikoen gainekoa. Horrela, plan orokorrekiko ezartzen den maniobra-marjina interpretatzeko irizpideak finkatuko dira, etorkizuneko hiri-garapenaren tamaina eta ezaugarriak zehazteko.

Arloko txostenetan hiri-antolamendua finkatzeko ahalmenari buruzko lotura berezien gaineko azterketa zehatza barneratu beharko da, modu grafiko eta erabat ulergarrian. Azterketa grafiko horren osagarri, idatzizko txosten bat gaineratu beharko da. Txosten horretan Arloko Plan ezberdinek (hala behin betikoz onartuta daudenek nola eraketa-prozesuan direnek, betiere, behin onartuta Plan Orokorrean eragina izan badezakete) dituzten lurralde mailako loturei buruzko araudi aldetiko irismen derrigorrezko eta orientagarria argitu behar da.

3.2.1.2.2. Etorkizuneko hiri-antolamenduan kontuan hartzeko ingurumen arloko loturei buruzko azterketa

Indarreko lurralde-antolamenduaren azterketari buruzko lanen eraketarekin koordinatuta, ingurumena babesteko errespetatu beharreko lurralde mailako lotura guztien gaineko azterketa grafiko eta idatzizko egingo da (betiere, plan orokorraren berezko edukian eragina izanik), ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren azterketan barneratuko direnak.

Xede horietarako egingo dira Lurralde Antolamenduko Arauetako edukiari jarraiki ezarri diren babes bereziko eremuak eta Europako Ingurumen Zuzentarauek eta xede horretarako eta haiek garatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezartzen dituen irizpideek babestu beharreko espazio bereziak hautemateko beharrezko informatzeko lanak.

Aurrekoa osatzeko, lurraldean eragina duten arloko legeriek ezarritako lotura bereziak aztertu eta zehaztuko dira, behin betiko onartuta dagoen (edo behin betiko onarpena jasoko duten edo dokumentua eratzekeo prozesuan zehar aldatzen direnekin, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin eta Plan Orokorrean eragina duen beste edozeinekin gertatzen den moduan) lurralde-plangintzaren loturekiko zein erlazio duten zehaztuta geratzeko moduan.

Fase honen barnean, era berean, aztergai izango dira udalerriko zaratari eta zarata-maila areagotzeko iguripenei buruz indarrean dauden legeriako loturak, nahiz udal plangintzan eragina duen beste edozein lege edo araudi.

3.2.1.2.3. Lurralde- eta ingurumen-loturen sintesi dokumentua

Bukatzeko, eta aurreko bi azpiataletan adierazitakoarekin bat egin beharreko azterketen sintesi gisa, dokumentu bat egingo da, udal plan orokorraren zehaztapenak ezartzeko aukerak edo maniobra-tartea zein diren azaldu eta deskribatzen duena, Udalbatzak eta interesaturik dauden gizarte agenteek eta herritarrek jakin dezaten.

3.2.1.2.4. Epea

Fase honi dagokion dokumentazioa egin eta aurkezteko epea BI HILABETEKOA izango da.

3.2.1.3. Etxebizitzaren erabilerari eta jarduera ekonomikoaren egoerari buruzko azterketa udalerrian

3.2.1.3.1. Etxebizitzari dagokionez

Udalak emandako hirigintza-lizentzia guztien azterketa sistematikoa egingo da indarreko Arau Subsidiarioen behin betiko onarpena abiapuntutzat hartuta. Lizentzia horiek etxebizitza-erabilera duten oin berriko eraikinei eta lokalei buruzkoak izan behar dute, bakoitzaren araubidea zehaztuta. Azterketa horretan etxebizitzak banatzeko lizentziak ere sartuko dira.

Informazioa hori oinarri modura erabiliko da udalerriak etxebizitza arloan dituen egiazko premien azterketa zehatza burutzeko, udalerri osoan hutsik dauden etxebizitza kopuruari arreta berezia eskainiz (etxebizitza libre edota babes publikoko etxebizitza kalifikazioak barne).

Eskuratutako emaitzak BEASAIN- ORDIZIA- LAZKAO Eremu funtzionalaren Lurraldeko Plan Partzialean horri dagokionez adierazitakoarekin alderatuko dira, proposatzen den bizitegi kopuruari arreta berezia eskainiz.

3.2.1.3.2. Jarduera ekonomikoari dagokionez

Udalerrian txertatutako jardueraren azterketa egingo da, industrial modura sailkatutako lurzoruetan arreta berezia eskainiz. Azterketa horretatik ateratzen diren ondorioak LPP eta jarduera ekonomikoen LAP planetan jasotako zehaztapenekin erkatuko dira.

3.2.1.3.3. Epea

Fase honi dagokion dokumentazioa egin eta aurkezteko epea BI HILABETE BATEKOA izango da.

3.2.1.4. Ingurumen-organoari igortzeko hasierako dokumentazioa prestatzea planaren prestaketan ingurumen alderdiak txertatze aldera

3.2.1.4.1. Edukia

Plan eta programen ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluekin eta Ingurumen arloko Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18,1. artikuluekin bat etorritik, planaren sustatzailea den organoak HASTEKO ESKAERA igorriko dio ingurumen-organoari, arloko legeriak eskatzen duen dokumentazioarekin batera, ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren prozedura abiarazte aldera.

3.2.1.4.2. Epea

Hasierako dokumentua igortzeko epea LAU HILABETEKOA izango da, plegu honen xede diren lanak hasten diren egunetik zenbatzen hasita (kontratua sinatzean).

Ingurumen-organoak, eragindako herri-administrazioei eta interesa duten pertsonen kontsulta egin ondoren, ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUA (211/2012 Dekretua) edo INGURUMEN AZTERKETAREN IRISMENAREN DOKUMENTUA (21/2013 Legea) eratuko du, estatuko legeriaren arabera.

Dokumentu horiek jendaurrean jarriko dira ingurumen-organoaren bitarteko elektronikoak erabiliz.

3.2.2. 2. fasea: Aurrerakina egitea.

3.2.2.1. Sarrera

Erreferentziazko dokumentua edo ingurumen-azterketaren irismenari buruzko dokumentua igortzen denetik aurrera (ingurumen arloko eskumeneko organoak igorria eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostenaren -211/2012 Dekretua- edo ingurumen arloko azterketa estrategikoaren -21/2013 Legea- hedadura eta xehetasun-maila zehaztekoa), edo epea (gehienez BI HILABETE) igarota ingurumen-organoak hura igorri ez badu, eta behin babes zibilean, ingurumen, kultura-ondare eta natura-ingurune arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko organoek dauden arriskuei eta antolamenduan errespetatu beharreko ingurumen, kultura-ondarearen babes eta natura-ingurune arloko baldintzatzaileei buruzko informazioa helarazi ostean (gehienez BI HILABETE), bigarren fasea hasten da, Plan Orokorren Aurrerakin bat eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) egitekoa.

3.2.2.2. Aurrerakinaren edukia

Erredakzio taldeak aukera izango du udalerrian indarrean diren hirigintza-tresnen dokumentazio guztia paper formatuan edota formatu digitalean, halakorik balego, behatu eta, beharrezkoa bada, erabiltzeko.

Plangintzaren Aurrerakinean BEASINGO udalerriko egiturazko hiri-antolamenduaren lehen proposamena barneratuko da, eta bertako dokumentu-edukiak sistematizazio hau izango du:

1. Hiriaren eta lurzoruaren okupazioaren bilakaeraren estrategia.
2. Hautemandako arazo nagusien azterketa eta kokapena, eta arazo horiek tratatu eta konpontzeko lan-ildo orokor eta espezifikoaren deskribapena.
3. Ingurumena babesteko, natura kontserbatzeko, eta paisaia eta natura-elementuak nahiz elementu artifizialak, bereziki kultura-ondareari dagozkionak, kontserbatzeko jarraibideak.
4. Hiri-mugikortasunaren garapenerako jarraibideak: trafikoa, bide-sarea, oinezkoen ibilbideak eta txirrinduentzako ibilbideak. Zonifikazio akustikoa. Eragin akustikoa.
5. INGURUMEN ARLOKO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA EDO INGURUMEN ARLOKO AZTERKETA ESTRATEGIKOA Dokumentu horretan 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa edo 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritakoa barneratu beharko da.
6. Udalerriaren kalifikazio orokorra, udalerrri osoa eremutan banatuta. Erabilera publikoko eta erabilera pribatuko eremuak bereiziko dira, eta horien artean, sistema orokorreko sareko berezko eremutzat hartzen direnak.
7. Zehaztapen zehatzak babes publikoko araubideren baten baitan dauden etxebizitza-estandarrak eta zenbatekoak betetzen direla bermatzeko, baita zuzkidura-alojamenduetarako edota tokiko zuzkiduretarako egon daitezkeen erreserbak ere, bosgarren xedapen iragankorrean adierazten den moduan, zeinaren arabera bere aplikazioa derrigorrezkoa den

eraikigarritasun urbanistikoa areagotzea eragiten duten egiturazko antolamenduaren aldaketa eta berrikuspenetan.

8. Lurzorua sailkatzea hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin modura, hiri-lurzoru finkatu kategoriako lehen zedarritze behin-behinekoa eginez eta lurzoru urbanizagarri sektorizatu eta, hala badagokio, kategoria zehaztuz.
9. Kalifikazio orokorra eta lurzoruaren sailkapena laburtzeko taula.
10. Aurreko ataletan ezarritako antolamenduko edukia deskribatu eta justifikatzeko memoria.
11. Proposamenaren bateragarritasuna Alboko udalerrietako Hirigintza Araudiarekin.
12. Lurzoruaren udal erreserbak Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 119. artikulua araberak zedarritzeko komenigarritasuna.

Aurrez atal grafikoan adierazitako dokumentazioa gutxienez 1:5.000 eta 1:2.000 eskalan aurkeztuko da hiri-eremuetan eta eremu urbanizagarritan, udal plano topografikoa aintzat hartuz. Gainera, dwg eta SHP (GIS) euskarrian entregatuko da.

3.2.3.3. Aurrerakina eratzeko epea

LAU HILABETEKO epea ezartzen da erreferentziazko dokumentua edo ingurumen-organoaren irismenari buruzko dokumentua jasotzen denetik, Aurrerakinari dagokion dokumentua eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) aurkezteko.

Hura amaituta, Alkatearekin edota gobernu-taldearekin elkartuta eta, ondoren, Plangintzaren Aholku Kontseiluarekin elkartuta, kontratistak Plan Orokorren Aurrerakina osatzen duen dokumentazioa entregatuko du.

3.2.3. 3. fasea: Aurrerakina jendaurrean ipintzea eta hartako edukiari buruzko arrazoibideei erantzutea, eta herritarren partaidetzarako prozesua aztertzea.

3.2.3.1. Jendaurrean ipintzeko epea

Behin erredakzio taldeak Aurrerakinaren dokumentua helarazita, ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) barne, Udalak aztertu egingo du eta, aldeztu aurretik udal zerbitzuen txostenak eginda, hala badagokio, jendaurrean erakustea adostuko du BERROGEITA BOST EGUNEKO epean zehar.

Fase horretan Aurrerakinaren dokumentua eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) alboko udaletxeetara igorriko da, horien berri izan dezaten.

Aipatutako epean zehar, herritarren partaidetzarako programaren barnean, herritarren partaidetza dibulgaziorako materiala erabiliz eta Aurrerakinaren edukia azaltzeko jendarteari irekitako saioak eginez zilegituko da, nahiz hartan jasotako beste edozein mekanismo erabiliz.

3.2.3.2. Aurrerakina jendaurrean erakutsi ostean jasotako arrazoibideak erantzuteko epea eta herritarren partaidetzarako prozesuaren azterketa.

Erredakzio taldeak Aurrerakina jendaurrean erakusgai izan zen aldian aurkeztutako arrazoibideei buruzko txosten bat egingo du, eta jendeak saio irekietan emandako iritziei buruzko laburpen-txosten bat igorriko du, Udalak ezagutu eta aintzatetsi ditzan, gerora plan orokorraren dokumentazioa eratzean errespetatu beharreko irizpide eta helburuak ezartze aldera.

Aurrez adierazitako txostenak igortzeko epea HILABETE ETA ERDIKOA izango da, aurkeztutako arrazoibideak jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.

3.2.3.3. Udal akordioa hartzea plan orokorra idazteko oinarri modura erabiliko diren irizpide eta helburuak finkatuz.

Horretarako eskumena duen udal organoak, arrazoibideei eta herritarren partaidetzari dagokionez erredakzio taldeak egindako txostenak, alboko udalerriei egindako kontsultaren emaitza eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) ezagututa, dagokion akordioa hartuko du plan orokorra idazteko oinarri modura erabiliko diren irizpide eta helburuak finkatzeko eta erredakzio taldeari jakinaraziko dio.

3.2.4. 4. fasea: Plan Orokorra taxutzea

3.2.4.1. Hasiera

Behin erredakzio taldeak plan orokorraren dokumentazioa idazteko erabiliko diren irizpide eta helburuak barneratzen dituen udal akordioa jasota, berezko dokumentua, hiri-antolamendurako plan orokorra izango dena, taxutzeko fasea hasiko da.

3.2.4.2. Plan orokorreko dokumentazioaren edukia

Plan Orokorraren dokumentazioak xehetasunez bete beharko du lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek xede horretarako ezarritakoa, egiturazko hirigintza-antolamendu xehatuaren edukiaren garapenarekin lotuta, Lurzoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. eta 56. artikuluetan eta egiturazko hirigintza-antolamenduaren edukiaren beste alderdi batzuk ezartzen dituzten gainerako artikuluetan xede horretarako adierazten denaren arabera.

Bestalde, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean berehalako neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31, artikuluan ezarritakoa ere bete egin beharko da, ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren baitako planetarako.

Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 62. artikulua legez plan orokorretarako ezarritako edukia sistematizatzeko, dokumentazio grafikoaren eta idatzizko dokumentazioaren banaketa klasikoa eginez, aipatu artikuluan jasotako dokumentuek zer eduki duten azalduko dugu.

3.2.4.2.1. Antolamenduaren berri eman eta hura justifikatzeko memoria

Dokumentu hau atal hauetan egituratzen da:

- Hirigintzari buruzko informazioaren laburpena. Laburpen horretan, azpimarratu behar da zein diren plangintzaren ahalmena eta, horrenbestez, proposatutako hirigintza-antolamenduaren edukia betetzea nabarmen baldintzatzen duten elementuak eta aurrexistentziak.
- Aurrerakinaren fasean eratu eta aurkeztutako antolamendu-proposamenaren justifikazioa, proposamen alternatiboak azalduta.
- Alternatibak eratu eta hautatzerakoan garatutako prozesuaren deskribapena, herritarren partaidetza kontuan hartuta. Irizpide eta helburuak hartzeko kontuan hartutako irizpideak.
- Aurrerakinaren herritarren partaidetzarako prozesuan aurkeztutako arrazoibide eta iradokizunen edukia buruzko laburpena, eta iradokizun horiek onartu edo baztertzeari buruzko edukia azalpena.

3.2.4.2.2. Ingurumen-memoria edo ingurumen-adierazpen estrategikoa eta hura plan orokorrean txertatzea justifikatzeko dokumentua

Aurrerakina eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostena (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa (21/2013 Legea) jendaurrean erakusteko fasea amaituta, ingurumen-organoari igorriko zaio dagokion espedientearen kopiarekin batera, jendaurreko kontsulta eta informaziorako izapideetan egindako arrazoibideak barne. Ingurumen-organoaren arabera dokumentazio horrekin aski balitz, INGURUMEN-MEMORIA (211/2012 Dekretua) edo INGURUMEN ARLOKO AZTERKETA ESTRATEGIKOA (21/2013 Legea) eratuko du, gutxienez, 211/2012 Dekretuaren IV. eranskineko edukia izango duena. Ingurumen-organoak ingurumen-memoriaren berri emango dio Udalari BI HILABETEKO epean.

Erredakzio taldeak plan orokorraren proposamena egingo du. Bertan, ingurumen arloko memoriaren (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko azterketa estrategikoaren (21/2013 Legea) zehaztapenak sartuko ditu. Hala, hori nola txertatu den islatzeko dokumentu bat eratu eta onartuko du. Dokumentu hori ingurumen-organoari igorriko zaio ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren prozedurako dagokion administrazio-espedientearen gaineratzeko, behin behin-behineko onarpena eman ondotik.

3.2.4.2.3. Informazio-planoak

Informazio-planoetan indarreko Arau Subsidiario eguneratuen dokumentazioa jasoko da indarrean dagoen lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen kontzeptuzko sistematikari jarraiki, egiturazko antolamendu xehatuaren berezko alderdiak jasoz eta azalduz.

Kudeaketa-planoak barneratu beharko dira egikaritze-unitateen edo egun indarrean den udal araudian jasotzen diren bestelako kudeaketa-eremu batzuen zedarritzea eguneratuta, eta horien garapenaren egoera ere azalduta.

3.2.4.2.4. Egiturazko antolamenduaren planoak

Eremu publiko eta eremu pribatu guztiak zehaztuko dituzte egiturazko antolamenduko planoek, udalerrri osoa barneratuz, eta eremu horien artean bereizketa egingo dute, lurzoruaren titulartasunari eta baimendutako jardueri buruzko gainjarritako bi irizpideri erreparatuz eta, beste alde batetik, sistema orokor publiko edo pribatuko eremu izaerari erreparatuz.

Era berean, egiturazko antolamenduko planoetan finkatuko da sistema orokorreko sareko zenbait eremu egikaritze-esparruei atxikitzea edo esparru horietan sartzea, eskuratzeko eta, hala badagokio, egiteko eta sartu edo atxiki diren esparruetako eraikigarritasun urbanistikoko titularrek kostua beren gain hartzeko.

Halaber, egiturazko antolamenduko planoetan jasoko da hiru lurzoru motetako bakoitzean sartutako lursailen definizio grafikoa. Lurzoru urbanizagarrian lurzoru sektorizatua eta lurzoru sektorizatu gabea kategoriak bereziko dira. Era berean, lurzoru mota horretan zer sektore antolatzen diren adieraziko da, hala badagokio, plan orokorreko dokumentazioaren bidez, eta zein atzeratuko diren plan partzial baten antolamendu xehatuan egiteko.

Hiri-lurzorua, eta hiri-lurzoru finkatuaren eta finkatu gabearen kategorien zehaztapena, antolamendu xehatuko planoetan ezarriko da, antolamendu xehatua plan berezi baten idazketara igorriko duten hiri-lurzoruko eremuak adieraztearen kalterik gabe.

3.2.4.2.5. Antolamendu xehatuko planoak

Antolamendu xehatuko planoan lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56. artikuluan ezarritako zehaztapen guztiak jasoko dira, eta horrez gainera, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen beste artikulua batzuetan sakabanatuta ezarrita dauden antolamendu xehatuari buruzko beste zehaztapen guztiak ere jasoko dira.

Antolamendu xehatu hori egiturazko antolamenduak plan berezi batean antolatu ez dituen hiri-lurzoruko eremu guztietan aplikatuko da, eta era berean, antolamendu xehatu hori lurzoru urbanizagarriko sektoreetako lursailetan aplikatuko da, baldin eta lurzoru urbanizagarri horien antolamendua plan orokorraren dokumentazioaren bidez egin behar bada egiturazko antolamenduaren arabera.

Antolamendu xehatuko planoen baitan, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56., 137., 139. eta 140. artikuluetan ezarritako egikaritze-esparru guztien zedarritzea jasoko da.

3.2.4.2.6. Hirigintza-arauak

Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta, hala badagokio, hura garatzeko araudian ezarritakoa bete ezean, hirigintzako araudiak ezarri beharko ditu plan orokorraren aplikazioari buruzko xedapen orokorrak, bere edukiaren oinarritzko eta lehen mailako eduki gisa. Horrez gaine, zehaztapen hauek ezarri beharko ditu:

- Hirigintza-kalifikazioaren araubidea, arreta hirigintza-erabilerei, eraikigarritasun fisiko eta urbanistikoari, eta egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren alderditan banatutako hirigintza-kalifikazioaren erregulazioari eta sistematizazioari eskainiz batez ere
- Hirigintza-antolamenduari eta bere zehaztapen-araubide gainjarritako baldintzatzaileak.

- Plangintzaren araubide juridikoa eta egikaritze-araubidea, lurzoruaren sailkapenari, egikaritze juridikoko araubideari, eraikigarritasunen esleipenei, eta hirigintzako eta eraikuntzako egikaritze-araubideari erreparatuz.
- Eraikinen araubidea eta partzela eraikigarrien erabilera, eraikuntzaren baldintza orokorrak ezarriz eta hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian baliabideak ezarriz, bai eta lurzoru urbanizaezinean ere.
- Plangintzarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza eta erabileren araubidea, zilegitutako kategoria ezberdinak garatuz, kasu bakoitzean baimendu daitezkeen ekintza eta erabilerak adierazita.
- Lurzoru urbanizaezineko eremuetan berariaz aplikatzeko hirigintza-arauak, ingurumena, paisaia eta natura babesteko alderdi garrantzitsuenei erreparatuz.
- Kultura eta natura ondarea babesteko arauak.
- Arau iragankorrak.
- Barneratzea egokituz jotzen den beste edozein.

3.2.4.2.7. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa

Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa behar adina zehaztasunez idatzi beharko da, udalak proposatutako hirigintza-antolamendua gauzatzeko duen ahalmena ebaluatzeko eta justifikatzeko.

Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketan aintzat hartutako plan orokorra gauzatzeko epea zortzi urtekoa izango da, plan orokorra behin betikoz onartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Bideragarritasunaren azterketak sistema orokor publikoen sarearen elementuak gauzatzeak izango dituen kostuen ekonomia-ebaluazioa jasoko du, zenbait eremuren eta sektoreen exekuzioari atxikitzen ez zaien finantziazioa ez duten elementuena, hain zuzen. Exekuziorako administrazio eskudunari erreparatuta banatutako ekonomia-ebaluazio hori honako eskema honi jarraiki egin beharko da:

- Komunikazio-, trenbide-, oinezko- eta txirrindu-azpiegituretako sistema orokorren zuzkidura-sareko elementuak.
- Espazio libreen eta jabari eta erabilera publikoko berdeguneen sistema orokorretako zuzkidura-sarearen elementuak.
- Titulartasun publikoko sistema orokorren eta ekipamendu kolektiboen zuzkidura-sareko elementuak, hezkuntza-, kultura-, osasun-, laguntza-, kirol- eta administrazio-erabileretarako direnak.
- Txandakako etxebizitzaren ekipamendu komunitarioen zuzkidura-sareko elementuak, aldi baterako ostatua eta ostatu soziala eskaintzeko bereziki premia duten taldeei, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki, beharrekoa balitz.

- Ur- eta energia-hornidura zerbitzuen zuzkidurarekin lotutako esku-hartze bereziki esanguratsuetako zerbitzu orokorren sareko oinarrizko azpiegiturak.
- Ur-ibilguen gainean jarduteko eta uholdeak izateko arriskuen arazoak konpontzeko obra publikoak.

Halaber, egiturazko antolamenduak proposatu dituen eremuetako eta sektoreetako hirigintza-obren kostuak ere aztertuko ditu ekonomia- eta finantza-bideragarritasuneko azterketak, plan orokorraren egiturazko antolamenduaren zehaztapenak xede horretarako ezarritakoa, bai eta lurzoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xede horretarako ezarritako xedapenetan jasotako beste zehaztapenak ezarritakoa ere, kostu horien osagai ezberdinak bereiziz.

Desjabetzeen aurreikuspenak ezarriko dira, Lurzoruari buruzko Legearen 185. artikulua aplikazioak izan ditzakeen ondorioak direla medio.

Azkenik, proposatutako plangintzaren zehaztapenak egikaritzeak zer zilegitasun ekonomiko duen argi adierazten duen txosten bat izango du ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketak, bai Udalaren, beste herri-administrazioen, GIPUZKOAKO Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta, hala badagokio, estatuko gobernuaren ikuspuntutik, eta exekuzioari atxikitako eremuen, sektoreen eta sistema orokorren exekuzioarekin lotutako ekimen pribatuaren ikuspuntutik.

3.2.4.2.8. Iraunkortasun ekonomikoaren memoria

Iraunkortasun ekonomikoaren memorian bereziki haztatuko da hirigintzako esku-hartzeak Ogasun publikoetan duen inpaktua, beharrezko azpiegituren ezarpenak eta mantenuak eraginda edo ondoriozko zerbitzuak abian jarri eta emateagatik. Lurzoruaren azaleran eta moldaeran duen inpaktua ere haztatuko da, urbanizatu beharreko lurzorua kenduta ekoizpen-erabilertarako zuzenduko den lurzorua, alegia.

3.2.4.2.9. Babestu beharreko elementu eta ondasunen katalogoa

Elementu babestuen plan berezian ondasunak, artifizialak nahiz naturalak, identifikatzen dira, haien balioari eta interesari erreparaturik babestu behar direnak, hori guztia lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Aipatu identifikazioaz gain, katalogatutako ondasunetan egin daitezkeen esku-hartzei buruzko arauak eta loturak ezarri beharko dira, bai eta babestutako ondasunetan eta haien ingurunean koka daitezkeen erabilerei jarri beharreko mugak ere.

Ondasunen zerrenda hainbat kategoriatan sistematizatu behar da, jarraian adierazitakoaren arabera:

1. Udalerriko hirigintza-ondareko ondasunak eta elementuak.
2. Udalerriko arkeologia-ondareko ondasunak eta elementuak.
3. Espazio eta elementu naturalak.

Zatiketa hori osatzeko, behar bezala zehaztu beharko da zein ondasunek duten udalaz gaindiko interesa, Eusko Jaurlaritzako Ondarearen Zuzendaritzak, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legeak ezartzen dutena betez, eta arreta berezia eskainiz Batasunaren garrantzizko leku, monumentu-multzo edota monumentuei, hala Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunak abiarazitakoei, nola halakotzat hartu dituen.

Udalaz gaineko interesa duten ondasunek eta elementuek beren hasiera- eta adierazpen-espedituetan jasotako jarraibideak errespetatu beharko lituzkete, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak ere, esleitzen zaien babes-mailaren arabera. Babestutako gainerako ondasunak eta elementuak tokiko intereseko zerrenda batean sartuko dira. Katalogoan, lehen adierazitako babes-arauak ezarriko dira, plan orokorraren berezko zehaztapenekin bat.

Edonola ere, katalogoan jasotako ondasunen eta elementuen babesari buruzko zehaztapen guztiak berariaz eta argi eta garbi sartu beharko dira plan orokorraren hirigintza-arauetako titulu batean. Horrez gainera, plano bat egingo da, non babestutako ondasun eta elementu guztien kokapena eta kategorizazioa berariaz jasoko den.

3.2.4.2.10. Hirigintza, eraikuntza eta ingurumen arloko ordenantzak

Hiri-antolamenduaren osagarri diren udal ordenantzak eratzeke dokumentua Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen "Hirigintza-ordenantzaren udal ordenantza osagarriak" izeneko 75. artikuluan ezarritako edukiarekin bat etorri idatziko dira.

Dokumentu hori egitean dokumentu mota honetarako edukian legez sar daitekeen hirigintzari, eraikuntzari eta ingurumenari buruzko beste edozein udal ordenantza ordeztuko da. Helburu horrekin udalerrian dauden mota horretako ordenantzak aztertuko dira, horietako erregulazioak ordenantza orokor honetako zati modura txertatze aldera.

Ordenantzen edukia hiru kapitulu nagusitan egituratuko da: hirigintza-ordenantzak, eraikuntza-ordenantzak eta ingurumen arloko ordenantzak. Argi eta garbi ezarri beharko da zer jarduketa-esparru eta hierarkia-maila duten ordenantza horiek lurzoru urbanizagarriko eta hiri-lurzoruko hainbat sektore eta eremuetako antolamendu xehatuaren hirigintza-arauen zehaztapenekin lotuta.

Ordenantzaren atal independente modura edo egoki ikusten den edozein modutan, aurretiaz dauden eraikinetarako irisgarritasun-baldintzen egokitzapena aztertu eta arautuko da. Era berean, hala badagokio, eraikin horiek energia-efizientzia hobetzeko irizpidetara egokitzea ahalbidetzeko betekizunak aztertuko dira.

Orobat, aurretiaz dauden eraikinetako beheko solairuetan etxebizitzak ezartzeko baldintzak arautzeko ordenantzak mantendu edo aldatu edo bertan behera uzteko premiari buruzko proposamena egingo da.

3.2.4.2.11. Genero-ikuspegia

Atal berezi bat sartuko da genero-ikuspegia eta genero bazterkeriatik heldu diren arazoak hiri antolaketan txertatzeko, eta gizon-emakumeen arteko

berdintasun politikak garatzeko, kontuan harturik hautematen diren afekzioak eta proposatzen diren neurri zuzentzaileak, denak ere hirigintzako araudian isla daitezkeenak

3.2.4.2.12. Euskarari dagozkion eraginak

Hizkuntza-eragina ebaluatu egin beharko da. Ebaluazioaren helburua euskararentzat negatiboak izan daitezkeen balizko arazoak ekiditea izango da euskarak "osasun ona" duen zonalde eta egoeretan. Eragin negatiboak hautemango balira, neurri zuzentzaileak aplikatuz zuzendu beharko lirateke.

Ebaluazioa plangintza-tresnetan egin beharko da prebentzio-neurriak txertatzeko.

Hizkuntza-eraginaren ebaluazioari dagokion txostena idatzi eta aurkeztu beharko da.

3.2.4.3. Fase hori eratzeko epea.

SEI HILABETEKO epea ezarri da, erredakzio taldeak udalaren akordioa, plan orokorraren dokumentazioa egitean zein irizpide eta helburu errespetatu behar diren biltzen duena, jasotzen duenetik hasita eta beti ere ingurugiroko organoak Udalari jakinarazi ondoren Ingurumen-memoria edo ingurumen arloko azterketa estrategikoa, dokumentazio horretako lanak egiteko.

Hura amaituta, Alkatearekin edota gobernu-taldearekin elkartuta eta, Plangintzaren Aholku Kontseiluarekin ere elkartuta, kontratistak Plan Orokorra osatzen duen dokumentu guztiak azaldu eta entregatuko ditu.

3.2.5. 5. fasea: Plan Orokorraren eta ingurumen arloko iraunkortasunari buruzko txostenaren hasierako onarpena ematea, jendaurrean ipintzea eta haietako edukiari buruzko arrazoibideei erantzutea, eta herritarren partaidetzarako prozesua aztertzea.

3.2.5.1. Plan orokorraren hasierako onarpenaren aurretiko administrazio-izapidea

Tokiko Udalbatzak plan orokorreko dokumentazioa jaso eta gero, ingurumen arloko memoria (211/2012 Dekretua) edo ingurumen arloko adierazpen estrategikoa (21/2013 Legea) integratu izanaren egiaztatzea barne, hasierako onarpenaren aurretik, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen "udal plangintzaren Aholku Kontseilu" izeneko 109. artikuluan ezarritakoarekin bat, dokumentazioa udal plangintzaren Aholku Kontseiluari helaraziko zaio txostena egin dezan.

Hasierako onarpenaren akordioa hartu aurretik, arestian adierazitako dokumentazioa Uraren Euskal Agentziari igorriko zaio. Agentzia horrek bere txostenaren berri eman beharko du bi hilabeteko epean eta, hala egingo ez balu, isiltasuna positibotzat joko da.

Udal zerbitzu teknikoek plan orokorraren dokumentazioa aztertu ondoren, eta lehen aipatutako txostenak jasota, hala badagokio, onartuko da hasiera batean plan orokorra eta jendaurrean jarriko da, gutxienez, HILABETE BATEZ.

3.2.5.2. Plan orokorraren hasierako onarpenaren ondorengo administrazio-izapidea

Behin plan orokorraren hasierako onarpena emanda, arloko eskumenak dituzten herri-administrazioetako txostenak eskatuko dira.

3.2.5.3. Jendaurrean ipintzea eta herritarren partaidetza plan orokorraren dokumentazioaren izapidearekin lotuta

Hasierako onarpena eman eta hurrengo BI HILABETEETAN, eta plan orokorra jendearen aurrean erakusgai jartzeko epearekin bat eginez, eta arloko eskumenak dituzten herri-administrazioetako txostenak igortzeko, xede horretako erredakzio taldeak egindako eta Udalbatzak prozesu honen hasieran onartutako programan ezarritako herritarren partaidetzarako esku-hartzeak egingo dira.

Erredakzio taldeak plan orokorraren edukia jendeari azaltzeko saioetan parte hartu beharko du gutxienez, Udalbatzak beharrezkotzat jotzen duen lokaletan eta ulermen egokirako dibulgaziozko materiala erabiliz.

3.2.5.4. Plan orokorraren hasierako onespenera aurkeztutako arrazoibideei emandako erantzunak eta herritarren partaidetzaren laburpena.

3.2.5.4.1. Edukia

Plan orokorrari hasierako onarpena eman eta jendaurrean erakusteko epea amaitu ondoren eta arloko eskumenak dituzten administrazioetako txostenak jaso ondoren, Udalbatzak jasotako arrazoibide guztiak bidaliko dizkio erredakzio taldeari, arrazoibideen edukiari buruzko txostena egin dezan.

Erredakzio taldeari aurkeztutako arrazoibideen edukiari buruzko txosten indibidualizatuak egiteaz gain, herritarren partaidetza-prozesuari buruzko txosten txiki bat egingo du, non azalpenak emateko saioetan hautemandako gorabehera nagusiak jasoko diren, txosten horiek Udalbatzaren iritzipean jartzeko.

3.2.5.4.2. Arrazoibideen edukiari erantzuteko epea eta herritarren partaidetzaren laburpena.

Txosten indibidualizatuak eta laburpen-txostenak egiteko epea BI HILABETEKOA izango da, idazketa-taldeak aurkeztutako arrazoibideen dokumentazio osoa jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita.

3.2.6. 6. fasea: Behin-behineko Onarpenerako Agiria

3.2.6.1. Behin-behineko onarpena hartzea

Udalbatzak arloko administrazioen txostenak eta erredakzio taldeak arrazoibideei emandako erantzuna jasotzen dituenean, behin-behinean onartuko du plan orokorra, aldez aurretik Aholku Kontseiluak Plangintzari buruzko txostena egin ondoren, beharrezkoak diren aldaketak eginez, beste hasierako onarpen bat eman behar izateko erabakia hartzeko aukera baztertu gabe.

Erredakzio taldeak, lehen adierazitako bi aukeretako edozeinetan, idatziko du hasierako onarpena eta Udalbatzak onartutako aldaketak jasotzen dituen dokumentazio batekina, Ingurumen arloko Memoria plan orokorrean txertatu

izana egiaztatzen duen agiriarekin batera, dokumentu hori onartzeko prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

3.2.6.2. Behin-behineko onarpenaren testuategina egiteko epea

